Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

| | | |
|---|---|---|
| GAIA: [redacted]k informazio publikoa eskuratzeko aurkeztutako eskaria | | ASUNTO: Solicitud de acceso a información pública, presentada por [redacted] |
| ARAUBIDE JURIDIKOAREN ETA FUNTZIO PUBLIKOAREN Zuzendaritza Nagusian aipatutako prozedura horri lotutako eskabidea jaso dugu. Hauek dira eskabideari buruzko datuak eta eskabidearen edukia: | | Habiéndose recibido en la Dirección General de REGIMEN JURÍDICO Y FUNCIÓN PÚBLICA solicitud afecta al procedimiento anteriormente reseñado, cuyos datos y contenido resultan ser: |
| -Interesduna: [redacted] (IFZa: [redacted]) | | - Persona interesada: [redacted] NIF [redacted] |
| - Helbidea: [redacted] | | - Con domicilio en: [redacted] |
| - Eskabidearen data: 2024/06/03 | | - Fecha de solicitud: 03/06/2024 |
| - Erregistro-data: 2024/06/07 | | - Fecha de registro: 07/06/2024 |
| - Eskabidearen edukia:<br><br>1. BFAren aurkako zenbat administrazioarekiko auzi-errekurtso jarri dira EAEANn, 2023an?<br><br>2. Epai horietatik zenbat dira irmoak Auzitegi Gorenean errekurritu ez direlako?<br><br>3. Epai horietako zenbatetan kondenatu dute BFA kostu guztiak ordaintzera, eta zenbatetan errekurtsogilea?<br><br>4. BFA kondenatua izan den epai irmoetan, zer zenbateko zuen prozedurak, eta zenbat ordaindu zaie beste alderdiaren abokatuari eta prokuradoreari, kopuru zehaztugabea zuten epaiak ere aintzat hartuta?<br><br>5. Errekurtsogilea kondenatua izan den epai irmoetan, zer zenbateko zuen prozedurak, eta zenbat ordaindu zaie BFAren abokatuari eta prokuradoreari, kopuru zehaztugabea zuten epaiak ere aintzat hartuta? | | - Contenido de la solicitud:<br><br>1, ¿Cuántos recursos contencioso-administrativos contra la DFB se han presentado ante el TSJPV en 2023?<br><br>2. ¿Cuántas de esas sentencias son firmes porque no se han recurrido al TS?<br><br>3. ¿En cuantas de esas sentencias ha sido condenada a la totalidad de las costas DFB y en cuantas el recurrente?<br><br>4, De las sentencias firmes en que ha sido condenada la DFB qué cuantía tenía el procedimiento y cuánto se ha pagado al abogado y procurador de la parte contraria. Incluidas las de cuantía indeterminada.<br><br>5. De las sentencias firmes en la que ha dios condenado el recurrente qué cuantía tenía el procedimiento y cuánto se ha pagado al abogado y procurador de la DFB. Incluidas las de cuantía indeterminada. |
| - Eskumena duen zuzendaritza nagusia: ARAUBIDE JURIDIKOAREN ETA FUNTZIO PUBLIKOAREN ZUZENDARITZA NAGUSIA | | - Dirección General competente: REGIMEN JURÍDICO Y FUNCIÓN PÚBLICA |
| Bizkaiko Gardentasunari buruzko otsailaren 17ko 1/2016 Foru Arauan xedatutakoarekin bat etorrita, | | De conformidad con lo establecido en la Norma Foral 1/2016, de 17 de febrero, de Transparencia de |

[redacted]

| | | |
|---|---|---|
| eskabide horren edukia aztertu da: | | Bizkaia, se ha procedido al análisis del contenido de la referida solicitud a tenor de: |
| 1) Izapidetzeko ez onartzeko arrazoiak (22. artikulua eta harekin bat datozenak): | | 1) Causas de inadmisión a trámite (artículos 22 y concordantes): |
| Informazio-eskaeraren xede den lehenengo gaia izan ezik, ikusten da badela ez onartzeko arrazoia, Bizkaiko Gardentasunari buruzko otsailaren 17ko 1/2016 Foru Arauaren 22.c) artikuluaren arabera. Izan ere, eskatutako informazio hori eskuratu ahal izateko, aurretiazko ekintza bat edo informazioa berregiteko prozesua behar dira. | | Con excepción de la primera cuestión sobre la que se solicita información, se aprecia la concurrencia de la causa de inadmisión prevista en el art. 22.c) de la Norma Foral 1/2016, de 17 de febrero, de Transparencia de Bizkaia, es decir se trata de información que para su divulgación requiere una acción previa o un proceso de reelaboración. |
| Hori dela eta, bakarrik onartzen da EAEANn, 2023ko ekitaldian, BFAren aurka aurkeztutako administrazioarekiko auzi-errekurtsoen kopuruari buruzko informazio-eskaera. | | Se admite, por ello únicamente la solicitud de información relativa al nº de recursos contencioso-administrativos formulados ante el TSJPV contra la DFB en el ejercicio 2023. |
| Epai irmo bidez ebatzi diren eta Auzitegi Gorenean errekurritu ez diren horiei buruzko kontsultari dagokionez – 2. galdera –, ezin da erantzun eta eskatutako informazioa eman, aldez aurretik arazte-prozesua egin, eta, gero, informazioa berriz landu gabe. Izan ere, EAEANren ebazpenak errekurritzeko edo aurkaratzeko aukerak informazio-eskatzaileak planteatutako formulazio sinplea baino askoz zabalagoak dira, eta eragotzi egiten dute ebazpenak irmo bihurtzea: berrikuspen-errekurtsoak, deuseztasuna, kasazio autonomikoa, betearazte-intzidenteak... | | En cuanto a la consulta sobre cuáles de ellas han sido resueltas por sentencia firme y no han sido recurridas ante el Tribunal Supremo -pregunta nº 2-, no puede ser contestada y aportada la información solicitada sin un previo proceso primero de depuración y después de reelaboración; y ello porque las posibilidades de recurso o impugnación de las resoluciones del TSJPV que impiden su firmeza son bastante más amplias que la simplista formulación que plantea el solicitante de información, dado que caben recursos de revisión, nulidad, casación autonómica o incidentes de ejecución, y todos ellos impiden que las resoluciones alcancen firmeza. |
| Horregatik, aurreko aldietan jakinarazi dugun bezala, informazio mota hori ezin da eman planteatutako modu orokor eta bereizi gabean; eta, modu xehatu eta egokian eskaintzeko, berregin egin behar da, eta horrek lan gehiegizkoa eta justifikatu gabea eskatzen du, gardentasuna xede. Gauzak horrela, egindako informazio-eskaera onartezina da, 22.e) artikuluaren arabera. | | Por lo que, tal como se le ha informado en anteriores ocasiones, este tipo de información no puede ofrecerse de la manera global e indiferenciada que plantea; y para ofrecerla de manera desglosada y correcta requiere de una labor de reelaboración que resultaría por otra parte abusiva y no justificada con la finalidad de la transparencia, incurriendo con ello también la solicitud de información formulada en la causa de inadmisión del art. 22.e). |
| Hala ere, informazio-eskatzaileari, bere eskaerarekin bat egin dezakeen informazio ahalik eta gehien emateko, 2023an jarritako administrazioarekiko auzi-errekurtsoen izapidetze- | | No obstante, a los efectos de proporcionar al solicitante de información, toda la que sea posible en línea con su petición, se le indicará el estado de tramitación de los recursos contencioso- |

| | | |
|---|---|---|
| egoera adieraziko zaio. | | administrativos formulados en 2023. |
| Bestalde, 3., 4. eta 5. galderei dagokienez ere, beharrezkoa izango litzateke informazioa aldez aurretik berriro lantzea. Izan ere, ez da erregistratzen, adibidez, zer prozeduratan kondenatzen den kostu guztiak ordaintzera eta zeinetan partzialki bakarrik pagatzera, eta ez da lotzen prozedura batean tasatutako kostuen zenbatekoa esleitutako zenbatekoarekin. Gainera, kostuak eta prozeduraren zenbatekoa ere, kasu askotan, beste aurkaratze bati lotuta daude, eta, azkenean, aurrez adierazitakoez bestelako zenbatekoak ordaintzen dira. Beraz, baliteke emandako datuak behin betikoak ez izatea, eta okerrak ere bai. | | En cuanto a las preguntas 3, 4 y 5, para dar contestación a las mismas, sería preciso igualmente una previa reelaboración; dado que no se lleva registro, por ejemplo, de en qué procedimientos se condena a la totalidad de las costas y en cuáles solo parcialmente, ni tampoco se relaciona el importe de las costas tasadas en un procedimiento con el de la cuantía que se le asignó; amén de que las costas y la cuantía del procedimientos están sujetos también en muchos casos a una nueva impugnación y finalmente se abonan cantidades diferentes a las previamente señaladas. Por lo que los datos proporcionados podrían no ser definitivos y devenir incorrectos. |
| Hartara, argi dago informazio-eskaera horiek ezin direla onartu, Bizkaiko Gardentasunari buruzko otsailaren 17ko 1/2016 Foru Arauaren 22. artikuluko c) eta e) letren arabera: ez dago justifikatuta informazio-eskatzaileak izan dezakeen interes generikoari erantzuteko Administrazioak informazioa berregin behar izatea, zenbait pertsona, aste batzuetan zehar, horretara lanean jarrita. | | Es obvio, por lo tanto, que también en relación con estas solicitudes de información se dan las causas de inadmisión de las letras c) y e) de la Norma Foral 1/2016, de 17 de febrero, de Transparencia de Bizkaia ya que no queda justificada que por el interés genérico que pueda tener el solicitante de información deba la Administración llevar a cabo un trabajo de reelaboración que puede suponer el trabajo de varias personas durante semanas. |
| 2) Informazio publikoa eskuratzeko eskubidea baliatzeko mugak: EZ da ematen foru arau horren 21.2 eta 20.1 artikuluetan eskubidea baliatzeko ezarritako mugak aplikatzeko egoeretako bat ere ez. | | 2) Limitaciones al ejercicio del derecho de acceso a información pública: NO se aprecia la concurrencia de ninguna de las limitaciones derivadas de los artículos 21.2 y 20.1 de la misma Norma Foral. |
| 3) EZ dago hirugarren pertsonen daturik, foru arauaren 20.5 artikuluan, Datu Pertsonalak Babesteari eta eskubide digitalak bermatzekoari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan ezarritakoaren arabera. | | 3) NO se ha advertido la existencia de datos de terceras personas a efectos de lo dispuesto en el artículo 20.5 de la Norma Foral y de la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y garantía de los derechos digitales. |
| Hori dela eta, Bizkaiko Gardentasunari buruzko otsailaren 17ko 1/2016 Foru Arauaren 18. artikuluan eta harekin bat datozen artikuluetan xedatutakoa ezarritakoa, eta titular gisa ditudan eskumenak baliatuz, honako ebazpen hau ematen dut: | | Por ello, en cumplimiento de lo previsto en los artículos 18 y concordantes de la Norma Foral 1/2016, de 17 de febrero, de Transparencia de Bizkaia y en ejercicio de las facultades de las que soy titular, vengo a dictar la siguiente: |
| EBAZPENA | | RESOLUCIÓN |

| | | |
|---|---|---|
| <u>Lehenengoa</u>.- Onartzea [redacted]k informazio publikoa eskuratzeko egindako eskaera, honako honi buruz: BFAren aurkako zenbat administrazioarekiko auzi-errekurtso aurkeztu diren EAEANn, 2023an. | | <u>Primero</u>. - Admitir la solicitud de acceso a información pública realizada por [redacted] sobre: cuántos recursos contencioso-administrativos contra la DFB se han presentado ante el TSJPV en 2023. |
| <u>Bigarrena</u>.- Ez onartzea [redacted] informazio publikoa eskuratzeko egindako eskaera, honako hauei buruz: planteatutako gainerako gaiak, otsailaren 17ko 1/2016 Foru Arauaren 22.c) eta e) artikuluan aurrekusitako arrazoiengatik. | | <u>Segundo</u>. - Inadmitir la solicitud de acceso a información pública realizada por [redacted] sobre: el resto de las cuestiones formuladas, por incurrir en las causas de inadmisión previstas en las letras c) y e) del art. 22.c) de la Norma Foral 1/2016, de 17 de febrero. |
| <u>Hirugarrena</u>.- Baimendutako informazioa honela emango da: Ebazpen honi erantsitako dokumentua. | | <u>Tercero</u>. -- La información cuyo acceso se autoriza se proporciona de la siguiente forma: Anexo a la presente resolución. |
| <u>Laugarrena</u>.- Ebazpen hau interesdunari jakinaraztea eta beronen berri ematea Gobernamendu Onaren, Herritarrenganako Laguntzaren eta Zerbitzu Digitalen Zuzendaritza Nagusiari. | | <u>Cuarto</u>. -Notificar la presente resolución a la persona interesada, comunicando la misma a la Dirección General de Buen Gobierno, Atención Ciudadana y Servicios Digitales. |
| <u>Bosgarrena</u>.- Ebazpen honen aurka erreklamazioa jar daiteke Bizkaiko Foru Aldundiko Gardentasunari buruzko gaietako Batzordean, ebazpena jaso eta biharamunaz geroko hilabeteko (1) epearen barruan, otsailaren 17ko 1/2016 Foru Arauaren 24.5 artikuluan xedatzen denaren arabera. Interesatuak zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango du, bi (2) hilabeteko epean, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salan; bi kasuetan, jaso eta hurrengo egunetik aurrera. | | <u>Quinto</u>.- Contra la presente resolución podrá interponerse reclamación ante la Comisión de Reclamaciones en materia de Transparencia de la Diputación Foral de Bizkaia, en el plazo de un (1) mes con arreglo a lo establecido en el artículo 24.5 de la Norma Foral 1/2016, de 17 de febrero, o bien directamente recurso contencioso-administrativo en el plazo de dos (2) meses ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en ambos casos a partir del día siguiente a su recepción . |

Sin./Fdo.: TEODORO OLEA ITURREGUI 2024-06-25
LEGE AHOLKULARITZA OROKORRAREN ZERBITZUKO LEGELARI-BURUA
LETRADO/A JEFE/A SERVICIO DE ASESORÍA JURÍDICA GENERAL

Sin./Fdo.: CESAR GONZALEZ DE HEREDIA MARURI 2024-06-25
ARAUBIDE JURIDIKOAREN ETA FUNTZIO PUBLIKOAREN ZUZEND.NAGUSIA-REN ZUZENDARI NAGUSIA
DIRECTOR/A GENERAL DE DIRECCIÓN GENERAL DE RÉGIMEN JURÍDICO Y FUNCIÓN PÚBLICA

Akordioa/Acuerdo: R2 00542/2024 - Data/Fecha: 2024-06-25
BIZKAIKO FORU ALDUNDIA-DIPUTACION FORAL DE BIZKAIA - 2024-06-25